ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2019ko azaroaren 22a, ostirala • 135 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

280/2019 Foru Agindua, urriaren 25koa, zeinaren bidez Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatzen baita Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Arkaiate 12 sektoreko konpentsazio batzordean egindako aldaketa, hots, zuzendaritza organoko karguak berritzea

Lehenengoa. Gasteizko Udalak, Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorreko sarrera data 2019ko urriaren 9a duen idazki baten bidez, bidali du Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Arkaiate 12 sektoreko konpentsazio batzordeko idazkariak egindako ziurtagiria, zuzendaritza organoko karguak berritu direla jakinarazteko, Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadin.

Bigarrena. Arkaiate 12 sektoreko konpentsazio batzordea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskribatu zen Herrilan eta Hirigintza Saileko foru diputatuaren otsailaren 14ko 103/2006 Foru Aginduaren bitartez.

OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Hirigintza kudeatzeko arautegia onetsi zuen abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak 164. artikuluan xedatzen du ezen, konpentsazio batzordeetan gertatzen diren gorabeherak, hala nola zuzendaritza organorako izendapenen aldaketak, hirigintza entitate laguntzaileen erregistroari jakinaraziko zaizkiola, diharduen administrazioaren bitartez.

Gasteizko Udalak egindako jakinarazpenari eransten zaio 2019ko irailaren 10ean egindako ziurtagiria, zeina baita Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Arkaiate 12 sektoreko konpentsazio batzordearen batzar orokorrak 2019ko uztailaren 23ko bileran hartutako erabakiarena. Hain zuzen, erabaki hori zuzendaritza organoko karguen berritzea dela-eta hartu zen, hura osatuko duten pertsonak izendatzeko, zeinen izenak agiri horretan jaso baitira.

Bigarrena. Aplikagarria da Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroa sortu eta arautzen duen Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretuan aurreikusitakoa.

Hirugarrena. Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak txosten arrazoitua aurkeztu du, eta jakinarazitako aldaketa erregistroan inskribatzea proposatu du.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea Arabako Hirigintza Intereseko Elkarteen Erregistroan inskriba dadila Gasteizko Hiri Antolamendurako Plan Orokorreko Arkaiate 12 sektoreko konpentsazio batzordean egindako aldaketa, hots, zuzendaritza organoko karguak berritzea. Hona hemen:

— Lehendakaria: Ana Oregi Bastarrika;

— Idazkaria: Eduardo Bárbara Gutiérrez;

— Kideak: César Fernández de Landa Manzanedo, Miguel Ángel García Fresca, Álvaro Iturritxa Vélez de Elburgo, Iñaki Díez Unzueta, Carlos Fernández de Nograro Ocharan, Almudena Sánchez García, Sergio Ruiz de Azúa Gil, Julián Lizarraga Echevarria eta Miguel Ángel Beltrán de Otálora Pérez de San Román.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko urriaren 25a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2019.11.22 06:47:14 Z